

Aretxagazeta



Arexabaleta • 1997ko maiatzak

Kanpaiak eta kanpanjoleak

Demetrio Iriarte ■ Astebukaerako argazkiak ■ Gorriñaren bidetik II

Larringan gidari eskola

- ✓ *Gidatzeko baimen guztiak jaso ditzakezun eskola*
- ✓ *Klase teorikoetara bereziki zuzenduriko maixua*
- ✓ *Zure ordutegira egokitzen gara*



Informa zaitez:

Bulego ordutegia: goizez 10etatik ordu 1etara.
arratsaldez 4etatik 8etara.

Basabe Poligonoa F-0-7 • Tfnoa: 79 64 50



Larringan
 GIDARI ESKOLA
 ARRASATE ARETXABAETA



LASAGABASTER

Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE
TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55

ERREKABARREN MEREKATAL ZENTRUA

- JUANTXO URDAITEGIA 79 75 42
- MARI KARMEN OINETAKO DENDA 79 59 85
- IRUDI ILEAPAINDEGIA 79 80 90
- MIREIA ARRAINDEGIA 79 31 59
- ARAMAIO OKINDEGIA 79 64 87
- LEINTZ-ROSI 79 78 63
- ERREKABARREN FRUITATEGIA 79 96 43

Kanpaiak entzuten dituzu? Eta desberdindu?

Agustin Morales

(Langilea)

Bai, elizatik gertu bizi gara eta entzuten ditut. Goizean eta gero egunean zehar ere entzuten ditut. Kanpai jotze motak ez ditut ezagutzen.



Garbiñe Zubizarreta

(Langilea)


Plazan bizi naiz eta entzuten ditut. Orduz gain, zapatuan ordu 2etan, hiletetan, jaietan... jotzen dira. Kanpai jotze motak ezagutzen ditut, sutea egon zenean jo zutela gogoratzen dut.



Jose Mari Lasa

(Jubilatua)

Larrei entzuten ditut, me-zatakoak... Kanpai jotze desberdinak daude: hil kanpaiak, su kanpaiak, jaietakoak...




Judit Eraña

(Langilea)

Ez, normalean ez ditut kanpaiak entzuten. Nik ez dut asko ulertzen kanpai jotze moten inguruan. Hileta kanpaiak bereitzen ditut.



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria

Zabor kontenedoreak Urkulu eta Azatzan


Eskutitz honen bitartez, Aretxabaletako udaletxeko garbiketa arduradunengana zuzentzen naiz. URKULUn eta baita AZATZAKo eliza inguruetan ere ondo egongo litzateke zabor KONTENEDORE batzuk jartzea. Astelehenetan eta baita asteko beste egunetan ere, zabor ugari egoten da bai Urkulun eta baita Azatzako elizako aurrekalde eta arkupean ere. Guztiok ezagutzen ditugun, Landa, Senpere... moduko lekuetan badaude kontenedoreak. Zergatik ez aurrean aipatutako lekuetan?


Guzti honi erantzun bat emango diozue-lakoan nago eta baita orain hilabete batzuk Aretxagazetan idazten zen trafikoko seinaleei ere.

Joseba Lasagabaster

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Ana Eriz. **Erredakzio-kontseilua:** Ines Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Mirari Altube, Irune Iturbe, Alberto Izagirre, Alberto Elkorobarrutia. **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, Gorka Etxabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Joseba Lopez de Armentia, Arantzazu Zuazabertia, Inma Miguel, Loramendi E. E., kultura saila, Euskaltegia. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609
Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

e s k u t i t z a






Juan Mari Irigoienek bere idazle bizitzaren hainbat aspektu kontatu zuen

Juan Mari Irigoien eta Iñaki Zabaleta euskaltegiko ikasleen artean izan ziren

Udal euskaltegiko ikasleek Juan Mari Irigoien eta Iñaki Zabaleta euskal idazleekin solasalditxo bat izateko aukera izan zuten. Euskaltegiko

talde batek Juan Mari Irigoien "Babilonia" liburua aztertu du eta bide batez, liburu horren inguruko kontuez eta bere idazle bizitzaren inguruan berba egin zuten Irigoienekin. Iñaki Zabaleta-rekin, euskaltegiko beste taldetxo batek "110. estriteko geltokia" liburua aztertu zuten.

Bi idazleak ezagutu eta eurekin solasaldi atsegina izateko parada ezin hobea izan zuten ikasleek.



Euskaltegiko ikasleak Iñaki Zabaleta-rekin solasean

Musika eskolen elkarteak antolatuta musikaldia burutuko da Trintxerpen maiatzaren 24an. Musika eskoletako lana kanpora ateratzeko asmoz antolatutako musikaldi honek hainbat musika eskoletako 1500 ikasle inguru batuko du.

Aretxabaletako musika eskolatik adin desberdinetako 50 bat neska-mutikok hartuko dute parte. Kantu koralekoetz gain, honako instrumentuak ere joko dira: akordeoia, saxofoia, klarineta, flauta, tronpeta, tronboia, txistua eta trikitixa.

Kontzertua arratsaldeko 6etan hasiko da eta ETBk grabatuko du. Joko dituzten kantuak honako hauek izango dira: "Katuen testamentua", "Pastelero" eta "Kantatzen dugu kantuz".

Ia ba, emanaldi polita eskaintzen duten.

Musika eskolako gazteak Trintxerpera




EGUZKIGRAF
inprimategia



Industrialdea E-0-4
Tfnoa: 791844
Faxa: 792941

ARETXABALETA



URBALTZ
TABERNA

Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABALETA

Urkuluko urtegiaren auzolandegia antolatu du Gaztekutxak

□ Auzolandegiak egurrezko seinaleen bidez urtegiaren inguruko ibilbide desberdinak eta bide-zidorrak markatuko ditu

Abuztuaren 18tik 31ra bitartean Gaztekutxak, Aretxabaltako Udalaren laguntzaz antolatuz, auzolandegia egingo da Urkulun. 18-19 urte bitarteko 20 bat gaztek parte hartuko dute auzolandegian eta Azatzako aterpetxea izango dute egoitza. Auzolandegi honetan egurrezko seinaleen bidez urtegiaren inguruko ibilbide desberdinak eta bide-zidorrak markatuko dituzte, ingurua eta toponimia

hobeto ezagutu ahal izateko. Gainera, Urkuluk eskaintzen dituen erakargarritasun naturalak kontutan izanik, hegaztien babeslekuak errespetatu egin behar direla ohar-tarazteko ere burutuko da auzolandegi hau.

Sei auzolandegi

Aurtengo urtera begira, sei auzolandegi antolatuko dira Gipuzkoa osoan zehar: Urkizu (Tolosa), Irugurutzeta (Irun), Kalezar (Usurbil), Altzibar (Zegama), Igartza (Beasain) eta Urkulu (Aretxabaleta). Auzolandegi horietan 15 egunetan zehar, beste hogeitaz gipuzkoar gazterekin batera elkarlanean ihardungo da inguruko gune natural eta historikoak berreskuratzen.

Lagunartean eta lan eginez bi aste pasatzeko aukera zoragarria da hau, guzti honen inguruko informazio gehiago jakiteko Gaztekutxara 42 63 19 telefonora dei daiteke.



Azatzako aterpetxea erabiliko dute egoitza moduan

Udaleku irekietarako begiraleei deialdia

Aurten ere udaleku irekiak antolatuko ditu Ortzadar atsedean taldeak udalaren laguntzaz. Uztailaren 2tik 23ra bitartean egingo dira. Taldeko begiraleez gain beste begirale batzuk ere hartuko dira udalekuetarako, eta horregatik, uztaila honetan begirale lanetan aritu nahi dutenei deialdia egiten zaie. Begirale lanetan ibiltzeko, 18 urte edo gehiago izatea eta euskaraz jakitea beharrezkoa izango da.

Honez gain, udalekuak koordinatuzko, aisialdiko zuzendari tituloa duen pertsona bat ere behar da, edo koordinatze lanetan esperientzia duena.

Izena emateko Ortzadarren lokaletik pasa beharko da (Herriko plaza 1, 3. solairua). Ekainaren 2tik 13ra bitartean eta bertan egin beharreko guztiaren inguruko informazioa jaso ahal izango da. Ordutegia arratsaldeko 5etatik 8etara bitartekoa da, informazio gehiago: 79 01 84 zenbakian.

Osasun zentrua informatizatuko da

Joan den astelehenean aurrera Osasun zentrua informatizazio bidean da. Hemendik aurrera kontsultak ordenagailu bidez emango dira. Honez gain, herritarren historial klinikoa ordenagailuan sartuta egongo da, eta honekin batera datu guztiak zentralizatuta egongo dira. Osakidetatik bideratzen ari den informatizazio prozesua da hau eta horretarako programa propioa du. Beste herri batzuetako osasun zentruak informatizatuta daude jadanik, eta beste batzuk horretan dihardute.

Okindegia - Gozotegia

Aretxabaleta

Mitarte, 1. Ifnoa: 77 00 81

Aretxabaleta

Bertako okina

ZARAIA

TABERNA

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIK

ESKORIATZA

Tfno 714345

M

ERRETEGIA

Bazkari eta afariak

MENDIOLA

Astelehenean itxita

Agur beroa Demetrio Iriarteri

Pasatu den zapatuan, 81 urte zituela, hil zen Demetrio Iriarte txistulari ezaguna. Domekan hileta elizkizunak ospatu ziren Andra Mari parrokian eta eliza txiki gelditu zen Demetriori azken agurra egiteko.

Hileta komitiba, Oñatiko txistulari bandakoen eta Euskal Herriko beste hainbat herritako txistularien parte-hartzeaz burutu zen. Parrokiako atarian, Arrasate Musikaleko partaideek, Demetriok konposatutako "Estibalizeko Ama Birginaren eskaria" jo zuten. Euskal Herriko txoko desberdinetatik etorritako txistulari ezagunak bildu ziren hiletan, horien artean, Jose Ignazio Ansorena eta Xabier Vicandi txistulariak. Ansorena, gaur egungo Donostiako kontserbatorioko txistu katedratikoa eta Donostiako udaletxeko bandako txistularia da eta Vicandi Bilboko udaletxeko bandako txistularia.

Txistuaren inguruko pertsonaia ugari batu zen hiletara, baita hainbat txistulari banda ere: Zumarragakoa,



Txistuarekin zerikusia zuten hainbat pertsona batu zen hileta elizkizunera

Antzuolakoa, Oñatikoa, Uribekostakoa.

Elizkizunaz gain, Preferente mailako partidua jokatu aurretik, minutuko isilune bat gorde zen Ibarra

futbol zelaian, Demetrio izan baitzen UDAko himnoa sortu zuena.

Txistuaren inguruan horrenbeste lan egin duen gizonak merezitako agurra jaso zuen.

Demetrio Iriarte

Demetrio 70. hamarkadan ezagutu nuen, txistu ikasle nintzenez. Garai hartan, Alkar-en bitartez txistu ikasketak sustatzeari ekin zion gure herrian. Ekimen hauen atzean Demetrio genuen beti eta urte batzuk beranduago atzeratuen alde egindako hainbat kontzertutan ere parte hartu zuen, bandaren zuzendari izanik.

Hala eta guztiz ere, azken hiru urte hauetan gure arteko harremana sakonagoa eta estuagoa izan da. Tronbosi madarikatu batek oster, ezkerreko eskua ezin erabiliz utzi zuen eta ondorioz, hain maitea zuen instrumentua, hots, txistua, jo ezinean suertatu zen. Baina gaitzak ezin izan zuen bere sormenerako gaitasuna eragotzi eta musika konposatzen jarraitu zuen hil zen arte. Konposatutako musika bere nortasunaren islada da. Musika herrikoa da, eta gure herrian sendo errotuta dagoena. Armoniak garbiak, gardenak eta apaindurarik gabekoak dira. Melodiak, berriz, batzuetan alaiak eta bestela izpiritualtasunez beterik, nostalgikoak ez direnean.

Maila guztietarako lanak konposatu zituen, eta lan hauetariko askotan zuen sen pedagogikoa ageri da. Bere instrumentua zuen txistuaz, zeukan jakinduria hain handia izanik, bere sekretu guztiak atera zizkion.

Txistulari mailan aparta izan zen, doinu sakonekoa eta beti ere musikaren zerbitzuan.

Bere musikak gure herriko 50 urtetik gorako historia betiko bete du. Herriko hainbat elkarte, ekimen, gertakizun eta pertsonentzat sortu zituen abestiak eta honen adibide hor ditugu Ojala, Muru-alde, UDaren ereserkia, Alkar, Loramendi eta hain ezaguna den Gora Kirolak.

Hainbat lehiaketaren irabazle izanik, interprete eta konpositore mailan zuen kalitatea jakina da. Hala ere, niretzat guzti honen gainera deigarriena, bere izaera zen, jatorrasuna, harremanetarako erreztasuna eta gauzak egiterakoan zuen apaltasuna.

Muinetaraino Txantxiku, etxekoen eta lagunentzat maitagarri, solaskide atsegin eta nekazina, bidaiari nekagaitza Euskal Herri osoan zehar; txistua Turkia bezain urruti dauden bazterretaraino eramane zuen. Makina bat erromeri, alarde, kalejira eta kontzertu burutu zuen, bere adiskide izan zen txistu horrekin.

Ondare izugarria utzi digu eta maila guztietan eredu izan genezake. Horregatik eskerrik asko Demetrio.

J. R. Elgoro

Demetrio Iriarte Mujika

Demetrio Iriarte Mujika, Oñatin jaio zen 1915-XII-21ean. Misikako lehenbiziko ikasketak bere aitarekin hartu zituen, gero D. Pedro martinez izan zen bere irakaslea. Bederatzi urte zituenean eta Oñatiko Magdalena auzoko jaietan, lehenbiziko aldiz jendearen aurrean txistua jotzen agertu zen, honen oroimenez eta txistulari bezala urrezko eztaiak bete zituenean, "Kontrapas Magdalena" argitaratu zuen bere seme-alabei dedikatuz.

Musika eta armoniako ikasketak jarraitzen ditu, lehenengo Oñatin eta gero Donostian, Aita Urkia, Aita Madina, Isidro Ansorena eta Urteaga izan ziren bere maixuak.

Gerra ondoren, 1944. urtean Aretxabaletako txistulari eta arbitriosko plaza konkurtsora ateratzen da bertara azaltzen da Demetrio eta ez dute onartzen, arrazoia Frankoren Erregimenarekiko "desafecto" a zela. Baina hurrengo urtean eta Aretxabaletan sastre bezala finkatuta, txistulari plazan onartua izan zen.

Beste aldetik musika-rakako zaletasun honek, solfeoko klaseak dohainik ematera animatu zuen, hainbat neska-mutil pasatu ziren Demetrioaren klaseetatik.

Puntu garrantzisko bat Demetrio eta Aretxabaleta herriaren historian, Musikako Bandaren sorkundea izan zen, makina bat urtetan Aretxabaletako eta beste herrietako bezterrak alaitu zituenak, eta hone-

gatik Aretxabaletako udaletxeak 1992. urtean Musika Bandaren Urrezko Domina eman zion.

1964. urtean, Demetrioaren emaztearen heriotza dela eta, geldiu bat gertatzen da bere musika munduan, baina sei urte pasa ondoren, berriz hasten da sartzen bere munduan.

1994eko maiatzaren 29an Euskal Herriko Txistulari elkartearen eskutik Urrezko Domina jaso zuen.

Zuzendaritza ere landu du, Musikako Bandatik aparte, Txistularien alardeak ere zuzendu ditu, Biarritz, Oñati Aretxabaleta...

Musika konposaketan makina bat pieza eginda dauzka (60tik gora) Txistulari aldizkariendako eta baita ere Musika Bandarako. Sari batzuk ere baditu arlo honetan:

- Bilboko Txisturako Obren Txapelketan 1.go saria "Abendua" obrarekin.

- Txisturako Obren Txapelketan 3. saria "Txistu soinua" obrarekin.

- Biribilketa Txapelketan 1.go saria "Lais-terketa" piezarekin.

- Biribilketa Txapelketan 3. saria "Erandiotik-Iruñara" piezarekin.

Bukatzeko esan behar da, Demetrio joan den leku guztietara hara joan dela txistuaren soinua. Oraindik ere, gure artean izango da bere musika piezak jotzen direnean.



"Txistulari" 1994 aldizkaritik moldatua

**OSKAR
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABALETA

ARGAZKI

Urkiola

Tfnoa: 79 39 20
ARETXABALETA

Martín

Bere bezeroen zerbitzura


Mitarte, 16
Tfnoa: 79 01 72

INDUSTRIA
HORNIKUNTZAK

RKLI

Mitarte, 23 Aretxabaleta
Tfnoa: 79 96 66
Fax: 77 10 33

Euskararen eguna



Eguraldiak lagundu ez arren, giro bikaina sortu zuten Euskararen egunerako antolatu ziren ekintza ugariak.



Hori bai hori bakailu platerra!
Azpian txapelketako irabazleak: Justino Carretero, Agustin Morales eta epaile lanetan ibili zen Lutxi Izurrategi.



Umoretsu ibili ziren bandakoak. Ikusi bestela.

IRIARTE

Umeen
denda



Durana, 8 Aretxabaleta
Tfnoa: 79 10 96

BEIRALAN



KRISTALDEGIA

Loramendi 10 ☎ 79 81 78
Aretxabaleta

Artano
Taberna

Herriko Plaza
ARETXABALETA

IZOTZ
Taberna

Mitarte, 16 • Tfnoa: 79 73 65
Aretxabaleta

Otala-zelai eguna



Otala-zelaiko erromeria.
Gorriti, akordeoilariak, bazkaria,
sokatira, dantzariak, hori guztia izan zen Otala-zelain eta,
gainera, giro ederra.



G U R E A

*taberna
jatetxea*

Durana kalea
Tfnoa: 79 20 64

**AMETS
TABERNA**

Iparragirre, 4
Tfnoa: 79 01 29
Aretxabaleta

PAGALDAI
Opari denda

Durana, 33 ☎ 79 10 14
ARETXABALETA

**IBARRA
ESTANKOA**



Tabakoa eta
ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77

2.200 ikasletik gora hartuko dute parte I.go eskolen arteko ingeleseko ferian

□ Ikasleek ikasleentzat sortutako ingeleseko ekintzak landuko dira bertan



Hezibidek eta lau eskolek, ingeles feriararen inguruko prentsaurrekoa eman zuten maiatzaren 19an

Maiatzaren 19an, I.go eskolarteko ingeles feriararen inguruan prentsaurrekoa eman zuten Hezibide eta Deba Garaiko lau eskolek: Almen, San Frantzisko Xabier, San Viator eta Umezaintzak. Partehartzaileak, Maria Luisa Morado (Almen), Miren Jone Urrutia (San Frantzisko Xabier), Anabel Mondragon (San Viator) eta Gurutze Atxa (umezaintza) izan ziren.

Azken urteotan Hezibidetik bideratu den hizkuntz aniztasunaren barruan, lehenengo aldiz antolatuko da ingeles feria hau. Goian aipatutako lau eskoletako umeak izango dira protagonista.

Atzerriko hizkuntza landu

Lau eskolak Hezibiderekkin batera otsailetik hona ibili dira proiektua lantzen. Atzerriko hizkuntza baten aurrean, kasu honetan ingelesa, ikasleen protagonismoa bultzatu nahi da, ikasleek ingeles esperientzia berria eta guztiz praktikoa bizi dezaten. Horrela,

ikasle bakoitzak ahalmen guztiak ingelesez adierazi beharko ditu.

Guztira lau ingeles feria antolatuko dira eta bertan ikasle nagusiagoek txikiagoentzako hainbat ekintza antolatuko dituzte: jokuak, antzerkiak...

Egitaraua: ingeles feria

Egitaraua lau egunetan zehar luzatuko da, egun bakoitzeko ingeles feria bat ospatuz: maiatzaren 26 eta 27an Arrasateko polikiroldegian; 28an Aretxabaletakoan eta 29an Eskoriatzako frontoian.

Haur hezkuntzatik (4 urte) DBHko lehenengo mailarteko (12 urte) 2.200 ikasle inguruk hartuko dute parte. Feriek egun osoan zehar iraungo dute eta bertan hainbat joku egingo dituzte ikasleek. Lau eskoletako hurrez gain arratsaldetan kanpoko zentruetara ere parte hartu ahal izango dute ferietan.

Ekintza osagarri moduan gurasoentzat hitzaldia eta antzerkiak ere egongo dira.

Bake epailea eta ordezkioak izendatzeko prozesua

Udaletxeak datozen lau urtetarako bake epailea eta ordezkioak izendatzeko prozesua hasi behar du. Hori dela eta, eskaerak aurkezteko epea zabalik dago ekainaren 13ra arte.

Eskaera orria udaletxean bertan eskatu beharko da. Ekaineko plenoan erabakia hartu ondoren Bilbon dagoen Euskadiko auzitegi nagusian onartuko dira datozen lau urtetarako bake epailea eta ordezkioak zeintzuk izango diren. Pake epaile izateko 18 urtetik gorakoa izatea eta atxabaltarra edo Aretxabaletan bizitzea nahikoa dira.

Lapurreta

Merkatal zentruan

Maiatzaren 19 eta 20ko gauean lapurreta gertatu zen Merkatal zentruko hiru dendatan: Don Bideo, Zare eta Enborren. Ertzantzaren prentsa bulegoak jakitera eman duenez, hiru dendetatik hainbat material ostu zituzten lapurrek. Jabeek denuntzia jarri dute eta ertzantzak ikerketa zabaldu du.



TABERNA-BERRI JATETXEA

Durana, 26
Tfnoa: 79 20 67
ARETXABALETA

ARETXABALETA ITURGINTZA

Durana, 16
Tfnoa: 79 17 53
ARETXABALETA

Maritxu Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tfnoa: 79 23 53
ARETXABALETA

4. atala

Gorkari konpasa lapurtu diote eta Nahiaren kaxoian agertu da. Hauxe guztiz harritu da Edurnek bera salatu duenean.

Eta nor den ikertzen badugu ?

Nire ustez Nahia ez da izan.

Ba bale!



Bale.

Gorka, utzi konpasa, aztarnak egon daitezke eta.



Ekarri hona.

Konpasa musuzapian bilduta da



Begira, bi inizial ditu. Mukuzapiaren jabea ez zen horretaz ohartuko.



Gelatik irten
eta irakasle
gelarantz doaz.



Begira, Monika bi
inizial zeuden
idatzirik . Utzi 7.
mailako zerrenda,
mesedez.

Ongi da, hemen
duzue.



Inizial hauek
dituzten bi
persona daude...

Itziar Garmendia eta
Itsaso Goitigorabeitia.

Zeintzuk?



Itsaso izan da. Seguru
nago Itziar egun
hartan ez zela etorri.

Egia da! Monikari
esandakoan guztiz
harrituko da.




Benetan?

Monika, Itsaso izan da.



Monikaren ezustekoa
ikaragarria da.



Itsaso, zu izan al
zara lapurra?



Bai...hasieran
amorrua hartu nion
Nahiari eta ez nuen
koadrilan sartzerik
nahi.
Egin dudanagatik
damututa nago.



Dagoeneko dena argitu da eta guztiak, Nahia
barne, lagunak dira. Itsasori ere barkatu diote.



... A M A I E R A

Euskararen egunean, pasatu den zapatuan, kanpai jotze mota desberdinak entzuteko aukera izan genuen, Angelusa, hil kanpaiak, su kanpaiak... Gaur egun kanpaiak jotzeko ohitura desagertzen doa poliki-poliki eta gure inguruetan ia ez da kanpanjolerik gelditzen. Eliza gehienetan automatikoki jotzen dira kanpaiak, bestela lotura haundia suposatzen du eta inor ez dago borondatez lan horiek egiteko gertu. Garai bateko garrantzia ere galdu dute kanpaiak, hala ere, usadio izaten jarraitzen dute, hil kanpaiak eta jai berezietakoak batez ere.

kanpaiak, elizetako mezulariak

Egia esan, nekez bururatzen da kanpaien inguruko erre-
portaia egitea; kanpaiak entzuteko
baitira eta zaila da hauen hotsen
deskribapena idatziz egitea. Baina
ez da hori gure nahia. Kanpaien
inguruan dauden ohiturak eta gaur
egun mantentzen direnak kontatzea
baino.

Euskal Herriko baserritarrentzat,
elizetan ordulariak jarri aurretik,
kanpaiak betetzen zuten funtzio
hori, lanordua hasiera, bukaera
edo otoitzarena adierazten zuten.

Garrantzi haundiko mezuak bi-
daltzen ziren kanpaien bidez: festa,
ospakizun berezi eta baita ekaitz,
sute eta, jakina, auzokoen heriotzaz
ere abisatzen zuten. Horregatik
herri edo auzo gehienetan kanpan-
joleak egoten ziren.

Kanpai deiak

Aurrean aipatutako moduan,
hainbat abisu mota bidaltzeko eta
zabaltzeko erabiltzen ziren kan-
paiak.

Angelusa esaterako, eguerdiko
12etan jotzen da; argi goizeko 7etan
eta Aramaitteko ilunkaran, meza
ostean. Jose Luis Arratibel sakris-
tauak jakitera eman digunez, bi
urtetatik hona Aretxabaletan ez da
Angelusa jotzen. "Hondatuta dago
kanpaia eta horregatik ez da jotzen,
bestela, 18 bat kanpaikada jotzen
dira bakoitzean".

Baziren berri txarrak eta onak
adierazteko kanpai deiak. Hilzorian


zegoenari "Jauna" etxera eramatean
jotzen zena esaterako. Hildakoen
berri emateko berriz, hilzori-agonia
jotzen jarraitzen da, bederatzi kan-
paikada gizonezkoetan eta zortzi
emakumezkoa denean (auzoetan 3
gizonezkoa denean, 2 emakumez-
koa baldin bada). Jaunartzea egin
aurreko umeen hiletarako deia,
berriz, "Txin-txin" izeneko kan-
paiak egiten da. Hildakoa abadea
bada, 13 kanpaikada.

Ekaitza datorrela edo nonbait
suterren bat dagoela adierazteko
errepika luzeak jo izan dira. Kan-
paiak ekaitzak uxatzeko ere era-
biltzen ziren. Felis Madinabeitiak,

Agustindar elkarteko
kanpaiak



Izurietako eliza eta
kanpandorra



Arientzako kanpanjoleak, bitxikeria hau gogoratzen du: "Arientzako abadeak, isopoaz irteten zuen harria zetorrenean hau uxatzeko asmotan, baina orduan egiten zuen euririk gehien".

Berri txarrak alde batera utziaz, jai haundiak eta mezarako deia egiteko kanpaiak ere baditugu.

Jai bezperetan eguerdiko ordu 2etan eta ilunkarako meza ostean hasten ziren kanpaiak bueltaka. Egun berezietako deia, Andramari eguna, gabonetakoa, paskotakoa... parrokiaren dagoen kanpai haundienarekin egiten jarraitzen da.

Kanpai izenak

Leku batzutan kanpaiei izena ere ezarri zaie, bai jotze motei eta baita kanpaiei eurei ere. Horrela, "Letxuga kanpaiak" izenarekin ezagutu zituen Felix Madinabeitiak maiatzaren 3tik irailaren 14ra arte, (Santa Kurtzetik-Santa Kurtzera) egunero 12etan jotzen ziren errepikak. Letxuga sasoia zelako nonbait jarri zitzaizkien izen hori.

Agustindar elkarteko arratsalde bezperatako berriz, "txokolate kanpaia" esaten zieten batzuk. Txokolatea hartzeko ordu egokia zelako edo.

"Garbantu kanpaia", berriz, jai bezpera adierazteko ordu 2etan jotzen zen.

Era berean, kanpaiak ere baitaiatu egiten zituzten. Andra Mari parrokiako kanpandorrera igotzen bagara esaterako bost kanpai aurkituko ditugu. Haundiena, aurreko aldera begira dagoena, erlojuaz loturik dago eta jai berezietarako erabiltzen da: Andramaixetan, gabonetan... Udaletxera begira dagoenak Don Angel Garmendia izena du. Ume baten heriotza adierazteko erabiltzen denak, berriz: "Txintxina".

Agustindar elkarteko baratzean, lehengo kanpandorra bota egin baitzen, bi kanpai daude: San Agustín eta Kontsolazioko Ama Birgina. San Agustín, 1906. urtekoa da, Agustínak gure herrira etorri eta handik bi urtetara ekarri zen.



Felix Madinabeitia Arientzako elizan kanpai-jotzen

Kanpanjole gutxi

Gaur egun oso kanpanjole gutxi gelditzen da. Kanpaiak jotzeko ohi-turak ere galdu egin dira eta herri gehienetan sistema automatikoak jarri dira: Andra Mari parrokiaren eta Agustindar elkartean esaterako.

Jose Luis Arratibel oso gaztea zela hasi zen kanpai-jotzen. Bere aita Larreako (Araba) kanpanjolea

zen eta berak erakutsi zion. Aretxabaletara etorri zenean, sakristau lanetan hasi eta dagoeneko 32 urte egin ditu kanpaiak jotzen. Gustoko lana duen arren, oso lotua dela esaten du. Bera ez dagoenean beste norbaiti uzten dio zeregina, parrokoari edo familikoren bati.


Auzoetan, kanpai-jotzea base-rrien artean, txandaka egiten da. Felix Madinabeitia Arientzako kanpanjolea da. Honek ere, bere anaiekin batera aitarengatik ikasi zuen. "Gaztetan argiaren postean esku bakoitzean harri bana hartuta jotzen ibiltzen ginen". Baina errepikak ondo jotzea ez da dirudien bezain erreza: "zarata ateratzea gauza bat da eta ondo jotzea beste bat. Kanpaia garbi jotzeko asko ibili behar da, instrumentu bat jotzen ikastea bezala da".

Gaur egun, ez Felisek ezta Jose Luis Arratibelek ere ez dute jarraitzailearik inguruan. "Kanpaiak gutxitan jotzen dira eta honetan ibiltzeko sarri jo behar da". Kanpanjoleak desagertu egingo direla badakite eta kanpai-jotze oinarrizkoenak bakarrik jotzen jarraituko dira, gehienak sistema automatikoekin.

**“Kanpai
errepikak garbi
jotzeko askotan jo
behar da,
instrumentu bat
jotzen ikasten den
moduan”**

Gorriñaren bidea: 5 ordu baino gutxiagotan

Sei lagun izan dira aurtengo honetan bigarren Gorriña Memorialean protagonista: Fernando Uribesalgo, Bitoriano Rivera, Iñaki Etxeberria, Xabier Sarasua, Luis Mari Otxoa eta Joseba Larrinaga. Hauen artean, Fernando, Luis Mari eta Riverak iaz ere egin zuten proba. Denek Aizkorrikako joan-etorria egin zuten Euskararen egunean. Goizeko 7etan Aretxabaletako euskaltegiko aldaba jo eta Aizkorrikako bidea hartu zuten. Urkulu-Jaturabe-Arantzazu-Urbixa-Aizkorri-Urbixa-Arantzazu-Jaturabe-Urkulu-Aretxabaleta zen egin beharreko ibilbidea eta 1.528 metroko mendia tartean. Ibilbidea ahalik eta denbora laburrenean egitea zen kontua. Gogoratu Gorriñak 7 ordutan egin zuela 1931. urtean.



Egindako ibilbidea eta denbora

Desafioa

Giroa berotzearen, honako desafio hau bota zion Murrükixo M. E.ak Loramendi E. E.ri: "Baietz joan etorria bost ordu baino gutxiagotan egin" eta baita lortu ere. Hiru lagunek, horien artean, Joseba Larrinaga, Fernando Uribesalgo eta Xabier Sarasuak bost ordutarako 10 minutu falta zirenean lortu zuten euskaltegiko aldaba jotzea. Hiru lagunek bost ordu baino lehenago ez zirela iritsiko pentsatzen zuten bidean, baina azkenean apostua lortu egin zuten.

Beste hirurak ere fin ibili ziren. Hauek bai meritoa hauek! Gainera bukaera parterako zaparrada galantak harrapatu zituen hiru lagunak. Bitoriano Rivera, Luis Mari Otxoa eta Iñaki Etxeberria, bananduta heldu ziren,

baina bikain ibili zirela esan beharra dago.

Aurrean daukaguna ez da gero txantxetako proba. Gorriñak ere bere garaian buelta zazpi ordu baino gutxiagotan egin zuenean ikusmin handia sortu zuen, bailara osoan desafio ikaragarria plazaratu zuena. Ordutik 66 urte pasatu dira eta iaz arte ez zitzaion inori proba egiterik bururatu. Edo burutik pasatu arren egitera ausartu ez. Auskalo!

Kontua da, kirol arloan sortu den ekintza berri bat dela hau, eta datorren urtera begira emakumeren bat animatuko denaren zurrumurrua ere zabaldu da. Ia ba datorren urterako jende gehiago animatzen den.

ENBOR

Eloy Borgas Iglesias

- Sukalde muntatzailea
- Aroztegia orokorrean


Santa Kurtz, 24 Aretxabaleta
Tfno-Faxa: 79 02 51

SUNZUE S.A.
FELIX PAGALDAY
Laborantza tresnak
Ongarriak-Haziak
Mitarte, 7 behea ☎ 77 00 33
Etxekoa: 79 42 56

MEMESA S.L.

Industriaren alde

Santa Kurtz, 25-27
Tfnoa: 77 11 75
ARETXABALETA



Aholkularitza


Basabe Industrialdea
Aretxabaleta
Tfnoak: 79 88 75
79 75 99

JOSU

HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte, 1 ☎ 77 03 08



ARGI-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Zigarrola, 1 8. pabiloia
ARRASATE Tfnoa: 77 11 30



Goian: lehenengo hirurak Durana kalera heldu ziren momentua. Beste bietan partehartzaileak irteera momentuan

Protagonisten esanak

• **Zer moduz joan da Aizkorriko joan-etorria?**

Xabier Sarasua: Nik espero nuen baino askoz ere hobeto. Ez nuen uste bost ordu aurretik egingo nuenik. Ondo aurkitu naiz eta gainera Joseba, Fernando eta hirurok batera joan gara bide osoan eta horrela askoz hobeto.

Joseba Larrinaga: Uste nuena baino gogorragoa izan da. Zati batzuk oso gogorak, Urbixatik Aizkorriara igotzen oso txarto pasatu dut. Bukaeran ondo erreku-peratu naiz eta gustora bukatu dut.

• **Eta Luis Mari, zer moduz egin duzu bigarren urtean?**

Luis Mari Otxoa.: Iaz baino hobeto. Iaz beldur gehiago nuen. Aurten gutxiago entrenatuta nengoan eta agian ez nuela bukatuko pentsatzen nuen. Baina proban ondo aurkitu naiz eta iaz baino 24 minutu gutxiagotan bukatzea lortu dut.

• **Bost ordu baino gutxiagotan egitea, ez da astakeria bat?**

J.: Norberaren egoeraren arabera dago hori, preparazioa, bidean nola aurkitzen zaren...

Egia esan, merito haundiena beste hirurek izan dute: Rivera, Otxoa eta Etxeberriak. Gu azken finean preparatuta gaude eta hirurok batera egin dugu proba. Besteak bakarrik egin dute eta alde handia dago.

• **Bidean zer jan duzue?**

J.: Gorunzkotan likidoa bakarrik edan dut, mineralekin nahastuta... Ez dut goserik pasatu. Aizkorriin fruitu ziku batzuk jan ditut eta nahiko.

• **Zer izan da gogorrena?**

X.: Bukaera. Urrexola igotzea eta handik hona etortzea. Bukaeran oso nekatuta aurkitzen nintzen eta justu justu heldu naiz.

• **Datorren urtean proba egitea gura duen bati, ze animo emango zeniokete?**

X.: Oso proba polita da, eta hori bai animatzeko.

O.: Abentura oso polita da. Apur bat gertatu ezkerdozeinek egin dezake. Hurrengo urtean neskak ere animatuko direla entzun dut.

• **Anekdotarik?**

O.: Bueltan, Urkulun jubilatutako bat zihoan nire aurrean eta ezin nuen harrapatu.

• **Etxekoek, ingurukoek zer esaten dizute?**

Ez nagoela sano. (Xabierren neska lagunaren erantzuna).

Ezkontu
TABERNA

Mitarte 9 • Aretxabaleta • Tfnoa: 79 92 01

Izozkiteki-Gozotegia
IZOZKITEGI

Otalora, 11
Tfnoa: 79 93 58
ARETXABALETA



MAPFRE

Aseguroak

Errekaabarren, 3
Tfnoa: 77 11 76



“Musikarik gabe kantatzea baino nahiago dut, gitarraren laguntzaz abestea”

Eukararen egunean Erramun Martikorena abeslaria entzuteko aukera izan genuen Iñaki Mariñalar gitarra joleaz batera. Iparraldeko abeslari hau artzaina dugu ofizioz. Baxenafarroko Baigorri herrian bizi da eta bertako larreetan ibiltzen ditu ardiak.

- Gure herriko giroa gustatu zaizu?
“Biziki”. Bai gustatu zait. Hemengo giroa oso euskalduna da.
- Noiz hasi zinen artzain lanetan?
14 urterekin eskola utzi eta gurasoekin batera nekazaritza eta artzain lanetan hasi nintzen.
- Eta gustoko duzu?

Bai, bestela ez nuen horrenbeste denboran jarraituko, beste zeozer egingo nuen.

• **Kantaria nondik nora?**
Familian izugarrizko afizioa genuen, aitona, osaba batzuk... Etxean ikasi dut abesten.

• **Orain ikasketa batzuk egiteko aukera izanez gero, zer ikasiko zenuke?**

Ingurugiroaz, animaliekin... zerikusia duen karrera bat.

• **Askotan etortzen zara Hego Euskal Herrira?**

Bai, eta gustatzen zait gainera. Gehiago ere etorriko nintzateke.

• **Aretxabaletan egonda zaude lehenago?**

Bai, bi aldiz. Kantatzera etorri nintzen.

• **Ardiak non utzi dituzu?**
Zelaian. Batzuk mendira igoko ditut datorren astean. Bildotsa beranduago izan dutenak San Juanetan igoko ditut.

• **Gaztarik egiten duzu?**
Bai, eta jendeari gainera asko gustatzen zaio nire gazta.

• **Non saltzen duzu?**
Kostaldean batez ere. Orduan badut harremanik nekazaria ez den jen-

dearekin ere.

• **Zenbat ardi dituzu?**
100 bat.

• **Zenbat gazta egiten duzu urtean?**

Negu osoan mila kilo.

• **Euskal jendearentzat abesten duzu beti?**

Gehienetan bai, baina baita publiko frantsesarentzat ere.

• **Ezkondua?**
Ez.

• **“A Capela” edo bakarrik abestea duzu gurago?**

Lehendabiziko 7 urtetan “A Capela” ibili nintzen. Orain gitarra jole batekin aritzen naiz, eta horrela hobe da.

• **Abeslari gustoko bat?**
Xabier Lete, Ruper Ordorika...

• **Zelan ikusten duzu iparraldean euskararen egoera?**

Nahiko gaizki. Hutsune bat dago. Gu baino gazteagoak asko dira euskara ez dakitenak. Orain ikastolako haurrak daude.

• **Euskal Herritik kanpo non ibili zara?**

Austrian, Kortzika uhartean, Belgikan, Ameriketako hiru aldiz...



Nerea Euskerajatorregi-ren ibilerak



Marrazkiak: Mikel Arroiabe

loramendi
euskera elkartea



Gaur, maiatzak 22, Santa Rita eguna da. Santa Rita ikastetxeko eguna. Goiko argazkia ere, ikastetxe berekoa dugu. Argazkiko urte zehatza ez dakigun arren, ikastetxea sortu zen hasierako urtetakoa dugu, 50. hamarkada bukaerakoa edo 60ko hasierakoa. Santa Rita egunez jai egiten zen eskolan eta meza ostean misiotarako tonbola jartzen zen kalean.

1957. urtean eta herriaren eskakizunei erantzunez hasi zen Santa Rita Ikastetxea bere zerbitzuak eskaintzen. Garai hartako Eskola Nazionalaren alternatiba moduan eskeintzen zen, eskolaurrea eta primaria (14 urterarte) barne zituen. Eskola orduetatik kanpo, eskulanak, atzerri-hizkuntza, idazkaritzako prestaketak, musika, etabar, ematen ziren. Bitxia badirudi ere, ezkontzarako arreoak, asko eta askok bertan egin zutela gogoratzen du Ama Kristinak eta klaseak gaez ere ematen zirela entzun izan du.

Korbatadun uniformeaz, dotore jantzita azaltzen zaizkigu argazkiko neskak.

Goiko iladan: **Mari Karmen Bengoa, Blanquita Mentxaka, Sokorro Unanue, Mari Carmen Anduaga, Maribel Iturbe, Rosita Bernal, Felisa Pagaldai, Itziar Zubizarreta.**

2. iladan: **Rosarito Idigoras, Lurdes Llodio, Rosa Mari Martinez de la Hidalga, Konsuelo Arriola, Mila Akizu, Mertxe Lonbide, Aurora Aranzabal, Ana Mari Otxoa, Arantxa Zubizarreta, Arantxa Arenaza.**

3. iladan: **Loreto Anduaga, Arantxa Biain, Arantxa Leanizbarrutia, Julita Fernandez, Mari Jesus Uribetxebarria, Aurora Iriarte, Mari Karmen Uribetxebarria, Mila Zubizarreta, Lurdes Lopez de Armentia.**

4. iladan: **Pili Garai, Pili Zubizarreta, Vitoria Romero, Agustina Aranzabal, Konsuelo Zubizarreta, Mila Zubizarreta, Mari Asun Guridi.**

Argazkia: Santa Rita Ikastetxea

BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA

Otalora kalea
Eliza aurrealdean
Tfnoa: 77 13 57

Bedarreta

taberna

Otalora, 19
Tfnoa: 79 20 89



Galartza auzoa


Tfnoa: 79 24 58

ARETXABALETA

BASTER-ALDE JATETXEA

SASOIKO
JAKIAK
GIRO
ONENEAN

Euskeraren eguna



Gaizki hasi zen eguna Loramendiko antolatzailleentzat, egunak iluna argitu zuen eta gainera Murruxokoekin egindako apustua samur irabazi zuten azken hauek. **Xabier Sarasua, Joseba Larrinaga** eta **Fernando Uribealgok** erraz, (itxura baten) gainditu zuten bost ordutako muga. Datorren urtean apostuko baldintzak gogortu egin beharko dira. Hiru horiez gain **Bitoriano Rivera, Luis Mari Otxoa** eta **Iñaki Etxeberriak** ere parte hartu zuten. Danak be itxura ederra eman zuten. Azken hauek gainera, hartu zuten zaparradaz, dutxatu beharrik ere ez zuten izan.

Hauetz gain berrikuntza politak ere izan ziren egun honetan. Bakailu txapelketan bost elkarteak hartu zuten parte. **Uratz alde** elkarteak irabazi zuen. 2. **Eguzki alde** geratu zen eta 3. **Ibai gain** elkartea. Uratz aldeko sukaldariak **Agustin Morales** eta **Justino Carretero** izan ziren. Epaimahaikoak, **Blanca Perea, Bixente Etxeandia** eta **Lutxi Izurrategi**. Dana dala, gauean txapelketako bakailua afaldu zutenek, denak be

edarrak zeudela esan zuten.

Beste gauza berri eta kurioa kanpai jotzearena izan zen. Han egon ginen papeleri begiratu barik antzik ere ezin emanda. Kanpai jotzen **Jose Olabe** eta **Jose Luis Arratibel** ibili ziren. Antimilitaristek hiztegi intsumitua atera zuten egun horretarako eta ez zitzaigun gaizki joango sarriago begiratuko bagenie horrelako hiztegiei.

Xake partidetan **Joseba Altubek** Arlutz xake taldeko kideak aldi bereko xake partidak jokatu zituen nahi izan zuten guztien kontra. Ondoan **Roberto Lopez** ibili zen, gehien irau baitzuen.

Eta urtetik urtera indartzen doan emakumeen arteko bolo txapelketan, 52 partehartzaileraren artean, **Irati Gorostiza** izan genuen irabazlea. Nirekin behintzat ez zuten konpetentzia haundirik izan.

Kulturako beste kontu batzuekin jarraituz, kultur etxean aurpegi barriak daude: **Txaro Gallego** eta **Ana Azkoaga**, azken hau arrasatearra, Tasoc moduloko praktikak egiten ari dira.

Gaztetxean ere egon zen mugimendua astebukaera honetan. Zapatuan **Eduardo Aldan** Bilboko mago ilusionista egon zen bertan.

Aipatu behar da ATBn saio berri bat sortu dela: "Munduan bueltaka". **Alberto Etxebarriak** estreinatua zuen gainera. **Maria Agirre** kazetariak zuzendu zuen saioa. Halaxe hasiko zen Spielberg bera ere.

Joan den astebukaeran jan eta edan besterik ez dut egin, datorrenean txabolaren batera joan beharko dut, horrela bizitzea gogorra da eta.

A R E T X A Z O K A

LANA

- Mendiolako soziedade garbitzeko pertsona bat behar da. Tfnoa: 79 33 48 (ilunkaran deitu).
- Umeak zaintzeko emakume bat behar da. Tfnoa: 79 00 14 (deitu 7etatik aurrera).
- Magisteritzan diplomatuak klase partikularrak emango lituzke (BO2 arte). Tfnoa: 79 75 23.

ETXEBIZITZA

- Etxe bat alokagai dago Santa Kurtz, 8 zenbakian. Tfnoa: 79 08 05.
- Garajea alokagai dago Lausita 5. zenbakian. Tfnoa: 79 05 38 (dendako ordutegia).
- Garajea salgai dago Lausitan. Tfnoa: 79 80 72. Deitu ordu 2etatik 6etara.
- Aretxabaletan lokal konpartitua salgai. Tfnoa: 79 46 20.

DENETARIK

- Motor bat salgai. Kawasaki Vulcan. 77 00 62 (arratsalde 3etatik aurrera).
- Behar ez duzun ordenagailuren bat baldin baduzu deitu Saretxora. Tfnoa: 79 10 51/79 01 05.
- Remolkea salgai. JB-150 modelo. Soporte eta aldatzeko erruerekin. Berria da, ezin izan dugu erabili. Oso prezio egokia. 79 81 78.
- Kanping denda salgai. 3 logela, sarrera eta aterpea. Harremanetarako deitu 77 11 45 telefonora.
- 4/5 plazatako karabana erosiko genuke. Tfnoa: 79 77 85.
- Siberiar husky txakurkumeak salgai. Perigri bikainekoak eta prezio ezinhobean. Tfnoa: 79 59 85. (Anagatik galdetu).
- Aterkina galdu nuen apirilaren 30ean Korueta inguruan. Aurkitu duenak deitu 79 75 53 telefonora.
- Bizikleta bat (paseokoa) emateko daukat. Egoera onean. Tfnoa: 77 01 74.

Orrialde honetako iragarkiak dohainik dira. Testua idatzi eta bidali kultur etxean dagoen buzoira edo 151 postakutxatilara edo eta deitu 79 01 05 telefonora.




HITZ GEZIDUNAK

	Istilua	Posesiboa	Madua	Nori
	Asteko egun	Beharikoa	Pelotari-dinastia	Sintelikoa
	Postari			
	Jakuna		Indioa	
			Trebea	
*Izena	Burdinola	Nafarroako auloetan	Haur itxi	
Musika-tresnak	Bizk. Galdara	Gaseka argia	Kiril proba-mota	
				Ikastaldia
Italiako			Atoma elektriko	
Euskal sindikatua			Eskaizako hiria	
	Aluminioa		Goratuak	
	Letra grekoa		(Errep.) Txari-mota	
Larraren gainaldia				Bokala
(Ald.) Jantziak	L	U	R	R
				Zero
			Ole, hitz-elkarketan	Osmioa
			Lehen bokala	Dago
Jainko egyptiarra		Kasik	Azido aluzinogarr	Polasioa
499		Posesiboa	Aintzira	Musika-nota
	Hektarea		Lagura	
	(Ald.) Datora		Elikatu	
Niri		Sortu		Kanpa
Manifestuak		Iridioa		Ukatzeko
			Gu, baina ingelesez	Bokala
			Bokala	Uranioa
Deabruaren etxea			Zaren horrek	


HABE

JEROGLIFIKOA



Gazteluaren inguruan HABE

Liburutegiko txokoa



Bufoia

Idazlea:

Adriana Sánchez (Ilustratzailea)

Argitaletxea:

TTartalo, 1996

Antzinako leienda saila

Flandriako erresuman Truku izeneko bufoia bizi omen zen lasai Gargantua agertu zen arte. Tarrapatatan! Tarrapatatan!. Hortik aurrera ez kontatzea hobe, zuek aurki deza-kezue leienda honen jarraipena Adriana Sánchezen ilustrazio bikainekin egokitutako liburu honetan.

Lehenko irakurleendako moduko liburua duzue hau, nahi izanez gero haur txiki-goei ere kontatzeko oso erabilgarria album formatoa duelako eta oso ondo ilustraturik dagoelako.

Honelako marrazkidun liburuak ez dira askotan aurkitzen euskarazko edizioetan eta eskertzekoa da honelako liburu bat aurkitu ahal izatea gaztetxoan eta baita helduen gozamenerako ere.

Joseba Lopez de Armentia

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07
ARETXABALETA

Berrikuntzak

Feli MODAN
DAGOEN
GUZTIA

Iparragirre, 4 Tfnoa. 79 21 24

MIKELOS

Moda
Guztia Zuretzat

Iparragirre 3 Tfnoa. 79 36 67
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

Garbiketa
orokorrak

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

Matikua
jatetxea

Bertako mortzilak eta
txorizoak

Eguazten arratsaldetan itxita
Azatza auzoa
ARETXABALETA

BP Amaia-Berri, S. L.

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor
Teknologia

Iber

✿ **Paperdenda** ✿

Otalora, 2
Tfnoa: 79 79 24

Aretxabaletako
industrialdea, S.A.

“ARINSA”

Basabe poligonoa “EO-10”
Tfnoa: 79 62 80
ARETXABALETA

MAIATZA

24
zapetua

AEROBIC IKUSKIZUNA

Aerobitona, Bergarako udal pilotalekuan, arratsaldez.

MENDI IRTEERA

Zaraia M. T.ak Gasteizeko Goiena M. T.ak antolatutako **Julio Garcia Memorialean** parte hartuko du. Iraupeneko ibilaldia izango da. Irteera Marainonen (Nafarroa) izango da eta bukaera Estibalizen (Araba). Guztira 53 km.

KONTZERTUA

LUTHER taldea Arrasateko gaztetxean. Gaueko 10,30etan.
ERASO taldearekin batera. Heriotzaren auzoan (1996) maketako abestiak eta beste zenbait abesti berri joko dituzte.

ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Aretxabaleta-Eskoriatza-Zigarrola-Epele-Elorrio-Durango-Urkiola-Otxandiano-Landa-Aretxabaleta. 82Km.

OÑATI-ARRASATE KROSSA

28
eguztiena

ESKOLEN ARTEKO AZOKA

Ikasleek ikasleentzat sortutako ingelesko ekintzak Aretxabaletako kiroletxean. Lehen hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleen bilduma. Antolaitzailea: Hezibide. Ikastolak: Almen, San Frantzizko Xabier, San Viator eta Umezaintza. Goizean: 9,30etatik 10,30etara. Arratsaldean: 2,45-4,15.

29
eguztiena

PAILASOAK TXORONPIO, PANTXI ETA PANTXO PAILASOAK

Zaraia zineman eskolaurreko umeentzat. Arratsaldeko 3,30etan. Kultura sailak antolatuta.



Enpresa berriak sortzeko ideiak

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saitetik, Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritzaren bitartez, enpresa berriak sortzeko gazteentzako ideia lehiaketa XII. edizioa antolatu da. 18tik 30era bitarteko gazteei zuzenduta egongo da. Eskerak 1997ko irailaren 19a baino lehen aurkeztu beharko dira kultura lurralde ordezkartzetan. Informazio gehiagorako 42 81 11 telefonora deitu.

EKAINA

1
domeka

ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Aretxabaleta-Elgoibar-Mendaro-Sasiola-Lastur-Itziar-Deba-Aretxabaleta. 101 km.

ESKORIATZA-ARRASATE KROSSA

7

zapatua

KINTO AFARIA

37. urtean jaiotakoek kinto afaria egingo dute Taberna Berri jatetxean. Izena tabernan bertan eman beharko da 1.000 pezeta ordainduz.

Lehiaketak

ANDRAMAIXETAKO KARTEL LEHIAKETA

Andramaixetako jaiak iragarriko dituen kartela aukeratzeko udaletxeko kultura batzordeak kartel lehiaketa antolatu du. Informazioa: Kultur etxean, 79 01 05.

Erakusketak

PINTURA ERAKUSKETA

Marcelino eta Esther Ruizen pintura erakusketa ikusgai izango da Arrasateko Harresi aretoan (Iturriotz 35). Maiatzaren 23tik ekainaren 8ra arte.



BEHARREZKO TELEFONOAK

Aretxabaleta

• Udal Bulegoak	79 10 00
• Udaltzaingoa	79 10 52
• Euskaltegia	79 21 68
• Postetxea	79 28 31
• Kultur-Etxea	79 01 05
• Gizarte-Laguntzailea	79 10 00
• Kiroletxea	79 64 61
• Parrokia (Bulegoa)	79 18 42
• Basotxo	77 09 81
• Urats Gain	79 99 11
• Osasun zentroa	79 74 58
• Hezibide Elkartea	79 31 32
• Industrialdea	79 62 80
• Liburutegia	79 10 00
• Taxi Geltokia	79 22 33
• Loramendi E.E.	77 09 70
• Murrukixo M.E.	79 93 74
• Leniz Lanbide Esk.	79 79 00
• Kurtzebarri Eskola	79 00 49
• Pausoka Haur-Esk.	77 03 77
• Santa Rita Ikastetxea	79 17 00
• ALMEN	71 49 64
• Otalora	79 79 99
• Ludoteka	79 05 81
• Musika Eskola	79 36 50
• Ortzadar	79 01 84
• Aretxagazeta	79 01 05

Udaltzaingoa

• Arrasate	79 14 39
• Bergara	77 91 06
• Eskoriatza	79 03 22
• Oñati	78 04 11

Denetarik

• Eskualde-Ospitala (Arrasate)	79 53 00
• Gurutze-Gorria (Bergara)	76 55 76
• Ertzaintza (Arrasate)	79 71 99
• Suhiltzaileak (Oñati)	79 28 00
• Renfe (Zumarraga)	72 15 15
• Renfe (Gasteiz)	23 20 30
• Pesa (Arrasate)	79 14 19
• Larrialdiak (Arrasate)	77 10 43
• SOS Deiak	088

Eskoriatza-Arrasate krossa

Ekainaren 1ean izango da.



Basabe Poligonoa A-15
☎ 79 34 28
ARETXABAleta

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g
Tfnoa: 79 16 05

ARETXABAleta

ITURGINTZA




Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

Mondeo berrria

Hau da agintea!

*Iñurrategi anaiak
berriz ere gailurrerantz
Mugarriekin*



*Mondeoa
2.450.000 ptatik
aurrera.*



MUGARRI

Araba Etorbidea, z/g • ARRASATE • Tel.: 79 07 44 / 54 • Faxa: 79 62 54